

ASKANTZAK.

I.^{ko} Somaketarena:

GAZTELABA.

I.^{ko} mutadi edo isitzarena:

OBIA DA CHORI BAT ESKUBAN, EZ EUN EGAAN.

II.^{garren} SOMAKETA

Baserri guztietan
Beti arkitzen da,
¿Zeñek zer dan ez daki
Biya eta *bata*?
Askotan *bata-iruba*,
Bestietan ona,

Baña mesede franko
Egiten duena.
Ainbeste istimatzen du
Au nekazariyak
Nola nere *guziya*
Eper- eiztariyak.


R. M.

BECHAORIK - BAGEA

(FUGA DE VOCALES).

S.y.t.z..t..sm.tz.nd.z.n
.sk.t.r.k.n.b.r.b.,
.zd.z.l..s.n.ñ.rch.k.r.
z.r.d.l..s.l.t.b.

Askantzak urrengo lumero edo liburukoan.



SECCION AMENA.

ASTOA ETA OTSOA

IPUIÑA.

Astoak bizkar-ezurrean
 Zeukan zori charrez zauria:
 Zan ikuskizun negargarria
 Belatzarrak ekin zionean.
 Alperra ostikadea,
 Eta arratza gogorak egitea,
 Astazaia begira dago farraz,
 Ta belea jaten aukeraz.
 Gauza errukarria!
 Astoaren ez egotea errukia.
 Ekusten zegoan larpetik Otsoa

Zein larri zerabilten Astoa:
 Astazaiak bereaz ez errukirik
 Ez belacharrari iges eragozterik.
 Zori gaiztokoa ni,
 Bere esku-pean banagi ipiñi,
 Au zion Otsoak, ta ez gaizki,
 Bada ondo aztertu badidi
Gizon gaiztagiñ otsotuak
Daude ipui onetan sartuak
Beti bizi bear dute oek ikaraz,
Ez jolasetan ta algaraz.

JUAN ANTONIO MOGUEL.

ASKANTZAK.

Bigarren Somaketarena:

CHAKURRA.

I^{ko} BECHAORIK-BAGEARENA

Sayatu zaite asmatzen dezun
 askaturikan buru ba,
 ez dezala esan inorchok ere
 zeradela oso lotuba.

